



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko irailaren 25a

115. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Finantza-ikuspuntutik jasagarriak diren inbertsioei buruzko Plana onesten duena. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu–Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (6. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Navarra Nuevo Futuro elkartearekiko laguntza-kontratuaren lizitazio-baldintzei buruzkoa. Mónica Domenech Linde andreak egin du (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren liburutegiek 2018ko udan izan duten ordutegiari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Vianako Printzea erakundeari eskumenak kentzearen Nafarroako ondare artistikoa arautzen duten legeak edo Memoria Historikoari buruzko Legea aldatzeari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, Nafarroako ikastetxe publikoetan 2015-2016 ikasturtetik aitzina pedagogia terapeutikoko irakasleen saioak murrizteko arrazoiari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, Atarrabian 2018ko irailaren 18an hiru adingabeko familia bat etxegabetu izanari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2019-2020 ikasturtean Medikuntzako Gradua ezartzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (28. or.).
- Galdera, iragan asteartean –2018ko irailaren 18an– Kasedan gertatzen ari zenagatik Larrialdi Zerbitzuari –112ari– eginiko lehendabiziko deia buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (28. or.).

- Galdera, 2018ko irailaren 18an Kasedan izandako gertakarietan 112ak eta Foruzaingoak egindakoari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, Davalor dela-eta Garapen Ekonomikorako kontseilariak hartutako erabakiak babesteari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Enplegu Plana zertan den. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (30. or.).
- Galdera, Ikeak bere zerga-betebeharrak beteko dituela bermatzeari buruzkoa. Laura Pérez Ruano andreak egin du (31. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Cristina Altuna Ochotorena andreak foru parlamentari karguari uko egitea (32. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzen duena.**

**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2018ko irailaren 7ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko irailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**1. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

17. artikulua 2. apartatuko C) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako hau izanen da:

“C) Aurreko konpromisoez gain, udalek egun indarra duen zerga-tasaren 0,20ko gutxieneko igoera onetsi eta mantendu beharko dute obraren exekuzioak irauten duen bitartean eta hura amaitu eta hurrengo lau urteetan, eta igoera aplikatu ondoren tasa ezin da izan 0,30etik beherakoa, ez eta 0,50etik gorakoa ere; horrekin batera, balorazio txostena eguneratu beharko dute araudi indardunarekin bat. Lurraren gaineko kontribuzioaren zerga-oinarrian ez da murrizketarik onetsiko, ezta aplikatuko ere, balorazio txostena eguneratzeak katastroko balorazioa igotzearen ondorioz”.

Zioak: Funtsezkoa da finkaturik edukitzea zein epetan eutsi behar zaien araubide bereziko sARBIDEA izateko exigitutako konpromisoei.

**2. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

33. artikulua 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“3. 30. artikulua 1. apartatuaren C) eta D) letretako inbertsioetarako libreki erabaki beharreko ekarpenak ordaintzeko eskaerak aldeko egokitasun-txostenak izan behar dituzte, eta epe haue-tan eginen dira:

A) 6. kapituluko obretarako eta jarduketetarako, 2018. ekitaldiari esleitutako ekarpenekin, ordainketa-eskaerak aurkezteko muga-eguna 2018ko abenduaren 1a izanen da.

B) 6. kapituluko obretarako eta jarduketetarako, 2019. ekitaldiari esleitutako ekarpenekin, ordainketa-eskaerak aurkezteko muga-eguna 2019ko azaroaren 1a izanen da, non ez den baimen berezi bat ematen toki entitateak frogatutako inguruabarrak daudelako, eskaera aurkezte galarazten dutenak; horrelakoetan epea luzatzen ahalko da urte bereko abenduaren 1a arte. Baimen berezi hori ordainketarako eskaerak aurkezteko epea amaitu baino 10 egun baliodun lehenago, beranduenez, eskatu beharko da”.

Zioak: A) eta B) letrak aldatzen dira, toki entitatei inbertsioak justifikatu ahal izateko behar adinako epeak bermatze aldera.

**3. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bakar bat gehitzeko zuzenketa. Hona edukia:

"Xedapen gehigarri bakarra.

Hiri hondakinen tratamenduaren atalaren barruan, ingurumeneko arazo larriak edo oso larriak dituzten zabortegiei buruzko jarduketetan, aldeztu aurretik Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak txosten loteslea emanda, gehieneko ekarpen ekonomikoa zenbateko lagungarriaren % 95eraino igo ahalko da, BEZa barne".

Zioak: Kontua da bermatzea toki entitateek inbertsio horiek egin ahal ditzatela ingurumenaren aldetik egiaztatutako larritasun egoerak dauden kasuetan.

**4. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
TALDE PARLAMENTARIOAK  
AURKEZTUA**

I. eranskina aldatzeko zuzenketa. Toki inbertsioen planerako ekarpenak Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kargura.

20. bis artikulua.

Tokiko programazioko 2019. urterako lerroaren partidetako zenbatekoak, I. eranskinean jasotakoak, honako zenbateko hauetan handituko dira:

|                                                   |              |
|---------------------------------------------------|--------------|
| Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak | 12.000.000 € |
| Zoladurak eta sareak                              | 10.000.000 € |
| Zoladurak sarerik gabe                            | 1.300.000 €  |
| Argiteria publikoa                                | 4.300.000 €  |
| Azpiegiturak eta ekipamenduak araudira egokitzea  | 2.200.000 €  |
| Bizitokietarako bideak                            | 500.000 €    |
| Igoera, guztira                                   | 30.300.000 € |

Zioak: Nafarroako Gobernuak berak 2017/2019 aldirako toki inbertsioen planaren 2018ko maiatzaren 31ko exekuzioari buruzko bere txostenean azaldu duen bezala, tokiko programazioko lerroan erreserban geratu dira 62.756.489,39 euro egiten duten inbertsioak; horrek berekin ekarriko luke Gobernuak toki entitateei 36.503.056,65 euroko ekarpena egin behar izatea.

2016ko otsailaren 5ean, Nafarroako Gobernuak berak 2015eko maiatzaren 31n TIParen gerakinaren saldoari buruz egin genion informazio-eskaeraren erantzuna igorri zigun. Saldoa 52.425.427,95 eurokoa zen.

Diruz lagundutako inbertsioak eta gerakin horren kargura egindako ordainketak ikusita, 2016. eta 2017. urteetarako toki inbertsioen indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari dagokionez, ikusten da 17 milioi euro baizik ez dela betearazi; hori dela eta aurreko TIParen diruzaintzako gerakina 35.000.000 eurotik gorakoa da.

Gobernuak TIPera bideratzen duen dirua toki entitateena da, ez Gobernuarena. 2017/2019 TIPeko tokiko programazioaren lerroan erreserban geratu diren eskaerak ikusita, Nafarroako toki entitateek inbertsioak egin behar dituzte, egin ahal dituzte eta egin nahi dituzte.

Legearen aldaketa hau ekarri dute TIPari buruzko legean egindako akats guztiak zuzendu ahal izateko, eta akats handiena da 2017/2019 aldirako toki inbertsioen planak zuzkidura eskasa duela. Akatsak zuzendu eta gure toki entitateek eskatzen diguten konponbidea emateko unean gaude, hartara erreserban geratu diren toki programazioko obren ia ehuneko 100a 2019. urtean egin ahal daitezen. Beharrezkoa da Gobernuak erakutsi dezan gure herrien toki inbertsioen aldeko apustua egiten duela egiazki.

**5. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
TALDE PARLAMENTARIOAK  
AURKEZTUA**

I. eranskina aldatzeko zuzenketa. Toki inbertsioen planerako ekarpenak Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kargura.

20. bis 2 artikulua.

Inbertsioen programetako 2019. urterako lerroaren partidetako zenbatekoak, II. eranskinean jasotakoak, honako zenbateko hauetan handituko dira:

|                                                           |                |
|-----------------------------------------------------------|----------------|
| Belaunaldi berriko banda zabaleko sarbide-sareen hedapena | 2.500.000 euro |
| Hiri hondakinen kudeaketa                                 | 2.000.000 euro |
| Uraren goi-hornidura                                      | 1.000.000 euro |
| Igoera, guztira                                           | 5.500.000 €    |

Zioak: Nafarroako Gobernuak berak 2017/2019 aldirako toki inbertsioen planaren 2018ko maiatzaren 31ko exekuzioari buruzko bere txostenean azaldu duen bezala, obra-inbertsioen programetako lerroan erreserban geratu dira 7.637.200 euro egiten duten inbertsioak; horrek berekin ekarriko luke Gobernuak toki entitateei 6.301.884 euroko ekarpena egin behar izatea.

2016ko otsailaren 5ean, Nafarroako Gobernuak berak 2015eko maiatzaren 31n TIParen gerakinaren saldoari buruz egin genion informazio-eskaeraren erantzuna igorri zigun. Saldoa 52.425.427,95 eurokoa zen.

Diruz lagundutako inbertsioak eta gerakin horren kargura egindako ordainketak ikusita, 2016. eta 2017. urteetarako toki inbertsioen inda-

rreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari dagokionez, ikusten da 17 milioi euro baizik ez dela betearazi; hori dela eta aurreko TIParen diruzaintzako gerakina 35.000.000 eurotik gorakoa da.

Gobernuak TIPera bideratzen duen dirua toki entitateena da, ez Gobernuarena. 2017/2019 TIPe-ko inbertsioen programetako lerroan erreserban geratu diren eskaerak ikusita, Nafarroako toki entitateek inbertsioak egin behar dituzte, egin ahal dituzte eta egin nahi dituzte.

Legearen aldaketa hau ekarri dute TIPari buruzko legean egindako akats guztiak zuzendu ahal izateko, eta akats handiena da 2017/2019 aldirako toki inbertsioen planak zuzkidura eskasa duela. Akatsak zuzendu eta gure toki entitateek eskatzen diguten konponbidea emateko unean gaude, hartara erreserban geratu diren toki programazioko obren ia ehuneko 100a 2019. urtean egin ahal daitezen. Beharrezkoa da Gobernuak erakutsi dezan gure herrien inbertsioen aldeko apustua egiten duela egiazki.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Finantza-ikuspuntutik jasagarriak diren inbertsioei buruzko Plana onesten duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legeintzarako ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak Finantza-ikuspuntutik jasagarriak diren inbertsioei buruzko Plana onesten duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Finantza-ikuspuntutik jasagarriak diren inbertsioei buruzko Plana onesten duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoa bete dezan, eta Gobernuari ohartaraztea bere irizpidea adierazteko epea zortzi egunetakoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2018ko irailaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Lege proposamena,  
Finantza-ikuspuntutik jasagarriak  
diren inbertsioei buruzko  
Plana onesten duena****ZIOEN AZALPENA**

2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, ehun eta hamaseigarren xedapen gehigarrian, arau berezi batzuk ezartzen ditu autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien aurrekontu-superabitaren erabilerarako; arau horien indarrez, aurrekontu-superabita aplikatuzetik salbuetsiko dira, Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikulua zehazten dituen moduan, baldintza jakin batzuk aldi berean betetzen dituzten autonomia-erkidegoak eta autonomia-estatutua duten hiriak.

Hartara, honako hauek egiaztatu beharko dira: aurreko ekitaldian superabita izan dela kontabilitate nazionalako terminoetan, eta aurrekontu-egonkortasunaren arau guztiak betetzen direla xedatutako baldintzetan; zor publikoaren helburua bete dela, Autonomia-erkidegoen Finantzaketari buruzko abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 14.2 artikuluan ezarritako baldintzekin; xedapen hau aplikatu aurreko sei hilabeteetako ordainketarako batez besteko aldiari buruzko datuek beran-kortasunaren araudia betetzen dutela; eta ziurtatuta dagoela kasua bada aplikatzekoak zaizkien likidezari buruzko mekanismo berezien baldintza bete egiten dela. Gastu-arauak edo zorraren helburua ez betetzeko kasuan, Aurrekontu eta Gastuetako estatu-idazkaritzaren edo Ogasuneko estatu-idazkaritzaren baimena beharko da, hurrenez hurren.

Kasu horietan, 2017ko superabita erabili ahal-ko da beren bizitza erabilgarrian jasagarriak diren inbertsioak egiteko.

Nafarroako Foru Komunitateak 2017ko aurrekontu-ekitaldia superabitarekin itxi zuenez eta aipatutako baldintzak betetzen dituenaz, eta ikusita Nafarroako Gobernuak departamentuek dauzkaten proiektuak, beharrezkoa da aurten eta datorren urtean egin beharreko inbertsioak, finantza-ikuspuntutik jasagarriak direnak, arautzea.

**1. artikulua.** Ikuspuntu finantzariotik jasagarriak diren inbertsioak.

2017ko ekitaldian kontabilitate nazionalen terminoetan lortutako superabita erabili ahal da finantza-ikuspuntutik jasagarriak diren inbertsioak egiteko, foru lege honetan ezarritako baldintzetan.

“Finantza-ikuspuntutik jasagarria den inbertsioa” da epe luze batean inpaktu positibo, zuzen eta egiaztagarri bat duena finantza publikoen jasagarritasunean eta ekonomiaren hazkunde potentzialean. Zehazki, egin beharreko inbertsioak eragin positiboak izan beharko ditu klima-aldaketarako, lagungarria izan den efizientzia energetikoa lortzeko, edo gastu errepikakorrek saihestea edo etorkizuneko ekitaldietan aurrezkiak izatea dakartzan inbertsio bat izan dena; hori guztia Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.

**2. artikulua.** Epea.

Kasuko gastu-espedientearen hasiera eta egindako inbertsioetik heldutako betebeharrak ekonomiko guztien aitorpena 2018ko ekitaldia amaitu baino lehen egin beharko dira.

Hala eta guztiz ere, inbertsio-proiektu bat ezin bada ekitaldi honetan guztiz betearazi, baimendutako gastuaren gainerako zatia hurrengo ekitaldian konprometitu edo aitortu ahal da, aurreko urteko diruzaintza-gerakinaren kargura finantzatzuz. Gerakin hori xede horri atxikirik geratuko da falta den zenbatekoan, eta ez da baimenik egonen hurrengo ekitaldiaren amaieran defizita sortzeko.

**3. artikulua.** Arriskuaren debekua.

Finantza-ikuspuntutik jasagarria izan eta foru lege honen indarrez gauzatzen den inbertsio baten bizitza erabilgarriak eta mantentzeak ez dituzte arriskuan jarriko Nafarroako Foru Komunitatearen aurrekontu-egonkortasuna eta jasagarritasun finantzarioa.

**4. artikulua.** Espedienteen fiskalizazioa.

Foru lege honen indarrez izapidetutako gastu-espedienteak direla-eta aldeztu aurreko fiskalizazioa egin beharko da.

Izapidetzen den gastu-espedienteak txosten ekonomiko berariazko bat edukiko du, zeinean jasoko baita inbertsioetik, bere bizitza erabilgarriaren denboran, erator litezkeen aurrekontu-eraginen eta eragin ekonomikoen proiektzioa. Nafarroako Foru Komunitateko Kontu-hartzaile Nagusiak inbertsioaren oroitidazki ekonomikoan jasotako gai ekonomiko eta aurrekontuko buruz informatuko du, eta Estatuko Kontu-hartzaile Nagusiari helaraziko dio hori, kasua bada txostena eman dezan jarduketak honako hauen arabera izatearen gainean: aurrekontu-egonkortasunaren arauak, zor publikoaren arauak eta Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan jasotako gainerako helburuei buruzko irizpideak; eta 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorre buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen ehun eta hamaseigarren xedapen gehigarria.

Ezin izan den foru lege honen indarrez inbertsio egin aldeztu aurreko fiskalizazio txostenak kontrakoak badira.

**5. artikulua.** Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari informazioa ematea.

Kontu-hartzaile Nagusiak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari informatuko dio foru lege honetan ezarritakoa aplikatuz egindako inbertsio guztiei buruz.

**6. artikulua.** Gastu konputagarritzat ez hartzea.

Foru lege honen arabera jasagarriak diren inbertsioetan egindako gastuaren zenbatekoa ez da gastu konputagarritzat hartuko Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluan zehaztutako gastu-arauaren aplikazioaren ondoretarako.

**7. artikulua.** Egin beharreko jarduketak.

Finantza-inbertsio jasagarrien kontzeptuan egin beharreko jarduketak foru lege honen I. eranskinean jasotakoak izan den dira; bertan, egin beharreko obra, jarduketa horri atxikitako aurrekontuko partida eta horietako bakoitzaren zenbatekoa aipatu beharko dira.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Aurrekontu-aldaketak.

Finantzaketa egokiko jarduketa bakoitzari atxikitako aurrekontuko partidak zuzkitzeko, kasua bada, behar diren aurrekontu-aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen horri buruz xedatutakoari egokituko zaizkio.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Toki Administrazioari zuzendari nagusiaren baimena.

Baimena ematen zaio Toki Administrazioari zuzendari nagusiari honako hauetarako behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan: diru-laguntzak onesteko prozedura zehaztea; dokumentazio administratiboaren aurkezpena; kaudimen ekonomikoaren gaineko kontrola; izapidetzea; obra-baimenak; diru-laguntzen likidazioa, eta, oro har, foru lege honen I. eranskinean jasota egon eta ikuspuntu finantzariotik jasagarriak diren inbertsioen prozedurari buruzko guztia, onuradunak Nafarroako toki entitateak direnean.

**Azken xedapenetan lehenengoa.** Koordinazio Batzordea.

Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege

Organikoaren azken xedapenetatik hirugarrenean, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzko abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarrian, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. eta 64. artikuluetan, eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen 67.2.l) artikuluan xedatutakoaren babesean, foru lege honetan jasotako zehaztapenen babesean sor litezkeen gaien araupetzea eta interpretazioa Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen baitan egiten dira.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan hartuko du.

1. ERANSKINA

| DEPARTAMENTUA                             |                                                               | Guztizkoa        |                    |
|-------------------------------------------|---------------------------------------------------------------|------------------|--------------------|
| Aurrekontuko partida                      | Tokio inbertsio-plana: TAP                                    | TAParen EKARPENA | TAParen inbertsioa |
| Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusia |                                                               |                  |                    |
| 781000 78310 7600 456103                  | HORNIDURAKO, SANEAMENDUKO ETA EURI-URETARAKO TOKIKO SAREAK    | 7.822.811,56     | 11.271.833,28      |
| 781000 78310 7600 261608                  | ZOLADURAK ETA SAREAK                                          | 7.528.294,94     | 9.639.707,34       |
| 781000 78310 7600 261609                  | ZOLADURAK SARERIK GABE                                        | 560.860,58       | 696.352,58         |
| 781000 78310 7600 459103                  | HIRIKO ARGITERIA                                              | 3.031.506,88     | 5.264.903,38       |
| 781000 78310 7600 261610                  | UDAL EKIPAMENDUAK ERAIKUNTZAKO ARAUDI TEKNIKORA EGOKITZEA     | 1.416.504,14     | 2.908.203,96       |
| 781000 78310 7600 45A202                  | BIZITOKI IRAUNKORRETARA DOAZEN BIDEAK ETA BIZIGUNEEN ARTEKOAK | 320.145,84       | 376.642,16         |
|                                           |                                                               | 20.680.123,94    | 30.157.642,70      |

| DEPARTAMENTUA  |                                                                                                         | INBERTSIOA |  |
|----------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|--|
| LEHENDAKARITZA | GASTU-PROIEKTUAREN IZENA:                                                                               |            |  |
| D.0            | Nafarroako Jauregiko kanpoko zurajeak aldatzea eta 1. eta 2. solairuetako klimatizazio                  | 488.198    |  |
| D.0            | Forzaingoaeren egoliza berria eta Barne Departamentuaren hainbat instalazio                             | 3.100.000  |  |
| D.0            | Suhiltzaileen ALERT proiektua: Programa informatikoak                                                   | 86.000     |  |
| D.0            | Suhiltzaileen ALERT proiektua: material teknikoak                                                       | 105.200    |  |
| D.0            | Suhiltzaileen ALERT proiektua: ibilgailuak                                                              | 217.800    |  |
|                | Nafarroako Gobernuaren Justizia Jauregiko klimatizazio-instalazioak berritzea                           | 800.000    |  |
|                | Banda zabalaren plan zuzendaria                                                                         | 9.840.000  |  |
|                | Nafarroako Gobernuaren webguneen iragarritasuna hobetzeko garapenak                                     | 700.000    |  |
|                |                                                                                                         | 15.337.198 |  |
| D.1 OGASUNA    | NZoren Karlos III.a etorbideko 4. zenbakiko eraikinaren argiteriaren erreforma eta berritzea            | 350.000    |  |
| D.1            | NZoren Karlos III.a etorbideko 4. zenbakiko eraikinaren inguratzailea berritzea Leihoak aldatzea        | 65.000     |  |
| D.1            | Arrieta kaleko 25. zenbakiko bulegoan erreforma egiteko proiektua inguratzaile termikoa hobetu eta egur | 85.400     |  |
| D.1            | Iraxeko Monasterioa kaleko 22. zenbakiko behe solairuko eta 1. solairuko bulegoan erreforma egiteko p   | 86.100     |  |
|                |                                                                                                         | 586.500    |  |
| D.4 HEZKUNTZA  | ERRONKARIKO IPa. GUZTIRA                                                                                | 3.376.908  |  |
| D.4            | ITURENGO IPa. GUZTIRA (6 unitate, jantokiarekin)                                                        | 1.334.618  |  |
| D.4            | ARBIZUJO IPa. GUZTIRA (lerro bat, jantokiarekin)                                                        | 3.402.675  |  |
| D.4            | ERRIBERRIKO HLHIPa. GUZTIRA (Handitzea)                                                                 | 889.107    |  |
| D.4            | SARRIGURENGO BHla. GUZTIRA                                                                              | 5.804.234  |  |
| D.4            | TORRE MONREAL HBIPa. GUZTIRA (mugatzeak eta patioa egokitzea)                                           | 878.872    |  |

| DEPARTAMENTUA | Aurrekontuko partida     | GASTU-PROIEKTUAREN IZENA:                                                                               | INBERTSIOA        |
|---------------|--------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|
| D.4           | 410001 41800 6020 325100 | BARAÑANGO SAHATSAK, GUZTIRA                                                                             | 198.628           |
| D.4           | 410001 41800 6020 325100 | ITURRAMA, PATIOA                                                                                        | 401.968           |
| D.4           | 410001 41800 6020 325100 | NAVARRO VILLOSLADA, PATIO ESTALIA                                                                       | 398.368           |
| D.4           | 410001 41800 6020 325100 | TORRE MONREAL, PATIO ESTALIA                                                                            | 120.000           |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | ALTSASU: LHko eraikina zaharberritzea, fatxada eta barneko aldea                                        | 50.000            |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | ALTSASU: BHiko kirol pista                                                                              | 55.000            |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | BURLATA: Ibaialde BHiko eskolazaintza eta kanpoko hesia                                                 | 60.000            |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | BURLATA: Ibaialde BHiko leihoak                                                                         | 40.000            |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | BURLATA: LHko IIP, berokuntzako zirkuituak sektorialatzea                                               | 80.000            |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | BURLATA: Askatasuna institutuko leihoak aldatzea                                                        | 100.000           |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | CORELLA: Alhama BHiko komunak konpontzea                                                                | 60.000            |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | LEKAROZ: Lekarozko institutuko leihoak aldatzea                                                         | 120.000           |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | IRUÑA: NHBZ, Jose Vila - dantza, instalazio elektrikoa berritzea                                        | 60.000            |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | IRUÑA: Arte Eskola, instalazioak eta leihoak                                                            | 120.000           |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | IRUÑA: Donapea IBP, komunak, tailerretako eskaileretako arraiak                                         | 100.000           |
| D.4           | 410001 41820 6020 325100 | TUTERA: ETI San Juan, fatxadak zaharberritzea                                                           | 100.000           |
|               |                          | Wifi sareak                                                                                             | 2.521.454         |
|               |                          |                                                                                                         | <b>20.271.833</b> |
| D.5 OSASUNA   | 543000 52200 6057 312800 | Nafarroako Ospitaleguneko azeleragailuaren konpontzea                                                   | 244.420           |
| D.5           | 543000 52200 6057 312800 | Nafarroako Ospitaleguneko erresonantzia magnetikoa gaurkotzea                                           | 484.000           |
| D.5           | 543000 52200 6057 312800 | Bereizmen handiko bideologoskopia eta bideogastroskopia Nafarroako Ospitalegunerako                     | 60.500            |
| D.5           | 543000 52200 6057 312800 | Larrialdietako erradiologiarako defektugailu digitala Nafarroako Ospitalegunerako                       | 41.140            |
| D.5           | 543000 52200 6020 312804 | Alergologia Zerbizua Conde Olivettoko eraikinetik Nafarroako Ospitalegunera eramatea                    | 2.075.730         |
| D.5           | 545000 52400 6020 312802 | Tuterako Reina Sofia Ospitaleko erradiologia arloko obra eta obra-zuzendaritza                          | 1.094.945         |
| D.5           | 545000 52400 6020 312800 | Reina Sofia Ospitaleko geletako komunetan erabateko erreforma egitea                                    | 400.000           |
| D.5           | 546000-52500-6020-312802 | Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Osasun Mentalaren Arloa birmoldatzea                                | 1.563.281         |
| D.5           | 546000-52500-6020-312802 | Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Igogailuen gunea birmoldatzea                                       | 217.734           |
| D.5           | 547001 52300 6020 312803 | Izabako osasun eteko leihoak konpondu eta aldatzeko obra                                                | 12.000            |
| D.5           | 547001 52300 6020 312803 | Aurizko osasun eteko leihoak konpondu eta aldatzeko obra                                                | 40.000            |
| D.5           | 547001 52300 6020 312803 | Beriozarko osasun eteko galdararen instalazioa gasolio-sistematik gas-sistemara aldatzea                | 45.000            |
| D.5           | 547001 52300 6020 312805 | Noingo osasun eteko galdararen instalazioa gasolio-sistematik gas-sistemara aldatzea                    | 50.000            |
| D.5           | 547001 52300 6020 312803 | Argiztapen-instalazioak (energiakoak) hobetzea zenbait osasun etetan                                    | 150.000           |
| D.5           | 547001 52300 6020 312803 | Sanduzelaiko osasun eteko galdara aldatzea                                                              | 22.000            |
| D.5           | 547001 52300 6020 312803 | Ekbarri-Aranazko osasun eteko galdara aldatzea                                                          | 22.000            |
| D.5           | 547001 52300 6020 312803 | Berokuntza-instalazioan hobekuntzak egitea eta instalazioa Sanduzelaiko osasun etxean                   | 25.000            |
| D.5           | 547001 52300 6020 312803 | Berokuntza-instalazioan hobekuntzak egitea eta instalazioa Mendillorriko osasun etxean                  | 40.000            |
| D.5           | 547001 52300 6020 312803 | Txantreako osasun eteko hozteko gailua ordeztzea                                                        | 45.000            |
| D.5           | 547001 52300 6020 312803 | Buzintxuriko osasun etxean erreforma egitea, larrialdietako arloa jartzeko                              | 150.000           |
| D.5           | 547001 52300 6020 312805 | Noingo osasun eteko kontsulten arloa birmoldatzea                                                       | 220.000           |
| D.5           | 540007 52002 6094 311100 | Honako arlo haurdako aplikazio informatikoak hobetzea: erradiologia (RIS), emaitzen ebaluazioa eta koni | 894.931           |
| D.5           | 540007 52002 6094 311100 | Honako arlo haurdako aplikazio informatikoak hobetzea: errejeta elektronikoa (LAMIA, SAPE eta OBSEF     | 799.981           |
| D.5           | 540007 52002 6094 311100 | Honako arlo haurdako aplikazio informatikoak hobetzea: Osasun Publikoaren Institutuarena (NOPLO) et     | 654.981           |
|               |                          |                                                                                                         | <b>9.352.643</b>  |

| DEPARTAMENTUA      | Aurrekontuko partida      | GASTU-PROIEKTUAREN IZENA:                                                                                | INBERTSIOA        |
|--------------------|---------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|
| LANDA GARAPENA     |                           |                                                                                                          |                   |
| D.7                | 720000/71510/2276/414102  | Valdetellasko ureztalurrak (Tutera). Proiektua egin eta betearaztea.                                     | 40.000            |
| D.7                | 720000/71510/7700/414103  | Vianako ureztalurretako 1.000 ha modernizatzea. Hitzarmen bidezko ekarpena.                              | 400.000           |
| D.7                | 720000/715106019/414302   | Valdeyko urtegiel buruzko azterlan geoteknikoak (II. fasea)                                              | 74.000            |
| D.7                | 720000/71500/7609/414400  | A68ren paraleloan doan nekazaritza-bidea                                                                 | 355.000           |
| D.7                | 720000/71510/6020/414300  | Finka esperimentaletarako instalazioak egokitzea                                                         | 850.000           |
| D.7                | 740002/74200/6019/456302  | Aizkolegiko jauregia zaharberitzea                                                                       | 50.000            |
|                    |                           |                                                                                                          | <b>1.769.000</b>  |
| GARAPEN EKONOMIKOA |                           |                                                                                                          |                   |
| D.8                | 810008 81200 7400 458100  | NASUVINS Arentzako transferentziak, Iurtzungo eta Lodosako lurzoru industrialerako                       | 5.000.000         |
| D.8                | 840003 84210 6010 453306  | Zoruak sendotzea                                                                                         | 6.700.000         |
| D.8                | 840002 84100 6010 453212  | PA30 errepideko 18+280 kilometro puntuko korapiloan semaforoak jartzea                                   | 1.535.038         |
| D.8                | 810001 81100 7400 422300  | CEINentzako transferentzia, CEINen Mintegia zaharberitzeko eta aparkalekua egiteko                       | 2.500.000         |
|                    |                           |                                                                                                          | <b>15.735.038</b> |
| ESKUBIDE SOZIALAK  |                           |                                                                                                          |                   |
| D.9:               | 900008 92100 6092 233100  | Zentroak kudeatzeko tresna estandar berri bat ezartzea                                                   | 400.000           |
| D.9                | 900008 92100 6092 233100  | Aldizkako ordaintzen aldaketak automatizatzea (REG, ADD...)                                              | 100.000           |
| D.9                | 900008 92100 6092 233100  | Prozesuen kudeaketa hobetzea beste sistema eta datu-base batzueko elkarrengarritasunaren bide:           | 35.000            |
| D.9                | 900008 92100 6092 233100  | Oinarritzko osasun laguntzan SIUSSen antzeko tresna informatiko bat garatzea eta hura integratzea Depi:  | 400.000           |
| D.9                | 950000 96000 6020 241302  | TUTERAKO ENPLEGU AGENTZIA HANDITzea                                                                      | 203.500           |
| D.9                | 950000 96000 6020 241303  | ITURRONDOKO ZENTROKO 4.0 TAILERRAK                                                                       | 207.622           |
| D.9                | 920005-93100-6020-231300  | Erronkari Ibarreko CAIDISeko geletako moduluetan erreforma egitea                                        | 1.400.000         |
| D.9                | 920005-93100-6020-231400  | Irunberriko San Isidro egoitzan erreforma egitea                                                         | 48.400            |
| D.9                | 920005-93100-6020-231300  | Concepción Benítez kaleko eraikinean erreforma egitea                                                    | 1.800.000         |
| D.9                | 920005 931000 6020 231000 | Inbertsio urgenteak eta azpiegiturak birmoldatzea honako zentro hauetan efizientzia energetikoa hobetze  | 100.000           |
| D.9                | 900007 91200 7800 261400  | Parke propioa zaharberitzea                                                                              | 4.000.000         |
| D.9                | 900007 91200 7800 261400  | Landa-inguruneke zaharberitze-lana                                                                       | 1.500.000         |
| D.9                | 900007 91200 7800 261400  | Tuterako birsorkuntza-lanak                                                                              | 150.000           |
| D.9                | 900007 91200 7800 261400  | Alokaruko etxebizitzien plana                                                                            | 10.000.000        |
|                    |                           |                                                                                                          | <b>20.344.522</b> |
| D.A KULTURA        |                           |                                                                                                          |                   |
| D.A                | A50001 A5410 6021 336103  | Larribideko atletismo-pistetako aldagelak eta malladia, moduluarekin: atletismoko, aldagelako eta mail   | 3.500.000         |
| D.A                | A50001 A5410 6021 336103  | Larribideko atletismo-pistetako aldagelak eta malladia: led erako argiztapena atletismo pistarako        | 350.000           |
| D.A                | A50001 A5410 6021 336103  | Larribideko atletismo-pistetako aldagelak eta malladia, moduluarekin: jaurtiketak egiteko eremua egokitz | 100.000           |
| D.A                | A50001 A5410 6021 336103  | Larribideko pabilioian erreforma egitea: itoginak eta isolamendua                                        | 400.000           |
| D.A                | A50001 A5410 6021 336103  | Larribideko pabilioian erreforma egitea: pabilioi estaliako led erako argiztapena                        | 200.000           |
| D.A                | A50001 A5410 6021 336103  | Gelbentzu araudiari egokitzeko erreformak: araudiari egokitzea eta igerilekuetan egokitze-lanak egitea   | 500.000           |
| D.A                | A50001 A5410 6021 336103  | Gelbentzu araudiari egokitzeko erreformak: led erako argiztapena Gelbentzuko igerilekurako               | 80.000            |
| D.A                | A50001 A5410 6021 336103  | Gelbentzu araudiari egokitzeko erreformak: 30 metroko pilotalekua (errebotea eta estalkia zabaltzea)     | 350.000           |

| DEPARTAMENTUA | Aurrekontuko partida     | GASTU-PROIEKTUAREN IZENA:                                                                              | INBERTSIOA       |
|---------------|--------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------|
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | Gelbentzu araudiar egokitzeko erreformak: led erako argiztapena pilotalekuan                           | 50.000           |
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | NUPeko zentroa: Beisbol zelaia egitea                                                                  | 1.100.000        |
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | NUPeko zentroa: kanpoko zelaietako aldagaitetako gunea                                                 | 400.000          |
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | NUPeko zentroa: belar artifizialeko errugbi zelaia                                                     | 400.000          |
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | NUPeko zentroa: kanpoko pistak birmoldatu eta ixtea                                                    | 300.000          |
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | NUPeko zentroa: urbanizazioa eta itxiturak                                                             | 220.000          |
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | NUPeko zentroa: argi- eta ur-kontagailuak instalatzea                                                  | 60.000           |
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | Egoitzaren eta aterpetxeen erreforma: Lekarozko igogailua                                              | 100.000          |
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | Egoitzaren eta aterpetxeen erreforma: Energia aurrezteko hainbat proiektu                              | 65.000           |
| D.A           | A50001 A5410 7400 336103 | Larra-Belaguako ipar eskiko zentroa: Arrastoak markatzeko makina, pistak hobetzea; ipar eskiko zentroa | 360.000          |
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | NUPeko zentroa - Led erako argiztapenak: kanpoko pistetan led argiak jartzea                           | 125.000          |
| D.A           | A50001 A5410 6021 336103 | NUPeko zentroa - Led erako argiztapenak: lehendik dauden errugbi zelaietan led argiak jartzea          | 80.000           |
|               |                          |                                                                                                        | <b>8.740.000</b> |
| D.B: RCC      | B40000 B4000 6020 232200 | LGTBI kolektiboari arreta egiteko zerbitzurako lokala prestatzea                                       | 300.000          |
|               |                          |                                                                                                        | <b>300.000</b>   |

II. ERANSKINA

TOKIKO PROGRAMAZIOARRAKO ESKATUTAKO ERRESERBAREN LABURPENA

| INBERTSIO MOTA                                                 | Inbertsioaren zenbateko osoa | Behin-behineko ekarpena |
|----------------------------------------------------------------|------------------------------|-------------------------|
| HORNIDURAKO, SANEAMENDUKO ETA EURI-URETARRAKO TOKIKO SAREAK    | 11.271.833,28                | 7.822.811,56            |
| ZOLADURAK ETA SAREAK                                           | 9.639.707,34                 | 7.528.294,94            |
| ZOLADURAK SAREK GABE                                           | 696.352,58                   | 560.860,58              |
| ARGITERIA PUBLIKOA                                             | 5.264.903,38                 | 3.031.506,88            |
| UDAL EKIPAMENDUAK ERAIKUNTZAKO ARAUDI TEKNIKORA EGOKITZEA      | 2.908.203,96                 | 1.416.504,14            |
| BIZITOKI IRAUNKORRETARA DOAZEN BIDEAK ETA BIZIGUNEEN ARTEKOAK  | 376.642,16                   | 320.145,84              |
| OSASUNGINTZARRAKO EDO IRAKASKUNTZARRAKO LURZATIAK URBANIZATZEA |                              |                         |

GUZTIRA 30.157.642,70 20.680.123,94

SAREAK

| ORDENA-ZK. | ORDENA-ZK. | SARE INGLUSIA                                                                                                                                                |              |                | SARE OSAGARRIAK           |                    |  | GUNEAK, GUZTIRA | SARE INGLUSIA             |                      | SARE OSAGARRIAK           |                      |
